


KANALAK

Produktua gehiago pertsoneri ailegatzeko helburuarekin bai kanal propioa eta baita elkartutako kanala erabiliko genuen. Hasteko elkartutako kanalekin hasiko zen zintzil butil-en salmenta, bide honi esker produktua ezaguna egitea lortza izango zen lehendabiziko helburua. Produktua marka eta funtzio berri batekoa izanik denda propio batean saltzen hasteak zailtasun asko ekarriko zituen, pertsonak ez zuten ezagutuko produktuaren eta markaren existentzia beraz pertsona askok honen beharra eduki harren ez zuten jakingo existitzen zela eta ezta ere non erosi ahalko zuten. Arazo hau konpontzeko helburuarekin beste denda batzuetan saltzen hasiko zen zintzil butil produktua fama lortu eta honen existentzia pertsona askori ailegatu ahal izateko.



Beste denda batzuetan saltzeaz gaiti kiroldegietan ere egongo zen bai erabilgarri eta baita erosteko aukerarekin ere. Kiroldegia izango da produktu honek erabilera gehien edukiko duen lekuetako bat beraz bertan ere salgai egoteak erosleei erosotasuna emango dio eta ezaguna egiteko ere lagungarria izango da.



Hau dena egin eta gero zintzil butil-en denda propioa zabalduko zen, bai fisikoa eta baita online ere. Gaitontzeko erosteko moduak oraindik ere aktibo egongo ziren baina denda propioan erostea zenbait abantaila emango dio bertan erostea pentsatzen duten pertsoneri. Produktuaren modelo berriak edo produktuarekin bat datozen beste zenbait osagarri dendan egongo ziren lehenengo eskuragarri eta denbora bat pasatu eta ea hauek merkatuan funtzionatzen duten ikusi ostean gaitontzeko denda eta lekuetan egongo ziren eskuragarri. Honez gaiti denda propioan erostea beste abantaila bat bertan piezak banaka erosi ahalko zenituela izango zen, honek zenbait funtzio ekarriko zituen, adibidez zintzil butil-en pieza bat

apurtzen bada ez duzu beste berri bat erosi beharrik baizik eta pieza hori erosi eta aldatu. Funtzio estetiko bat ere badu koloreak konbinatu eta zure bistarako politena diren kolore konbinaketak egin ahalko zenituelako.

Bi bide hauek erabiltzearen helburua zintzil-butil ahalik eta pertsona gehiengoarengana ailegatzea eta aldi berean fama hori erabilia etekiñ ekonomiko handiena ateratzea da. Bi baliabideak ondo erabiltzea izango zen bezeroentzan bide erosoena eta erabagarriena.